



## HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA NAFARROAN

**Sagrario Aleman**

*IKA – Arturo Campion Euskaltegia*

Helbide elektronikoa: [campion@ikanet.net](mailto:campion@ikanet.net)

### HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN ETA ALFABETATZEAREN GARRANTZIA

Euskaraz zerbait dakitenen % 36,6k euskaltegian ikasi du. Horixe da Nafarroako Gobernuaren enkarguz egindako azterketa batean esaten dena. Datu honek argi erakusten du euskararen berreskurapenean helduen euskalduntze alfabetatzeak duen **garrantzia** hizkuntz normalizazioan. Azterketa hau 15 urtetik gorako Iruñerriko populazioaz ari da. Gogoratu behar Iruñerriaren gehiengoa eskualde mistoan dagoela. Egia da, zerbait dakiten hauetako zenbaitek euskaltegian ez ezik beste nonbait ere ikasi duela; dela etxean, dela eskolan. Euskara ikasteko hiru gune hauek dira garrantzitsuenak, hirurak osagarriak, eta gainera, batak eta besteek elkar indartzen eta elikatzen dute.

Aipatutako azterketa honetan ageri denez, erdaldun hutsak diren 15 urtetik gorako Iruñerriko biztanleak 215.000 dira. Euskalduntzeari begira bada ba **eginbarra**. Ez dakiten hauek, nekez ikasiko dute etxean euskara orain arte egin ez badute; eskolaroa ere joan zaie, beraz, pertsona hauek euskaltegietan euskaldundu beharko ditugu.

Helduen euskalduntze alfabetatzearen garrantzia handia da, eginbarra ez da txikiago.

## EUSKALDUNTZEKO JENDE ASKO BAINA EUSKALTEGIAN GERO ETA GUTXIAGO

Azken urteetan Nafarroan helduen euskalduntzean beherako joera dugu, gero eta ikasle gutxiago dugu. Milaka eta milaka erdaldun huts izanik nola liteke jende gehiago ez etortzea euskara ikastera? Nonbait hurbil dugun jendea, euskara ikasi eta maite duena, etorri da. Ikasi nahi omen duten eta etortzen ez diren horietako askok uste ustel franko badute, aurki ere:

- Adina. Zaharregiak gara ikasten hasteko, heldutakoan ikastea ezinezkoa da. -Haurrak euskalduntzea aski da. Eta guk, haurrak euskaraz eskolatzen ditugu.
- Euskara hizkuntza zaila da oso, ez da hori ikasiko duenik.
- ...

Uste zabaldu hauez gain, egia da, zailtasun handiak, oztopoak, badi-tuela ikasi nahi duenak. Euskararen aldeko baino kontrako giroa dugu instituzioen aldetik. Jendeak egiteko asko du eta astirik ez 8 edo 10 ordu asteen emateko euskara ikasten. Erritmo motelagotan hasiz gero, ordea, prozesua izugarri luzatzen da eta nork eman urteak eta urteak euskaltegira etorritz eta betiko "arinaiztarra" izaten. Dirua ordaindu behar gainera eta euskaltegi ofizialetan baino poliki gehiago, eta hala ere euskaltegiak itolarrian Gobernuaren diru laguntza ziztrinak direla eta. Etxeko ataritik mugitu behar...

Eta ikasi nahi ez duena, inoiz ez da etorriko euskaltegira, hemen, inolako beharrik ez baitu inork euskaraz aritzeko.

IKAko ikasle kopuruaren bilakaera 2000-2001 ikasturtetik 2006-2007ra honako hau izan da euskalduntze prozesuko ikasleei dagokienean:

- 1159 ikasle 2000-2001ean
- Hurrengoetan 963, 897, 893, 745, 699
- Ikasturte honetan (2006-2007), berriz, 603.

Ikasle hauetaz landa, autoikaskuntzan badira 15 eta euskaltegietatik kanpo ematen diren eskoletakoak 50 inguru aurten. Lan munduan sarre-rra txiki bat egin dugu, azken hiru urte hauetan bost lantegitan hasi bai-kara klaseak ematen. Astean 2 edo 4 ordukoak izaten dira, ordea, eskola hauek, beraz, euskalduntzeari begira ez oso eraginkorrak.

Bestelako ikastaroak ere ematen ditugu tarteka, ikastaro laburrak izaten dira eta euskara maila mantentzeari edo hobetzeari begirakoak. Leitzako, Malerrekako, eta Bortzirietako euskaltegien artean irrati eta aldizkarien bidez alfabetatzekoa.

Nafarroako honako toki hauetan aritzen gara: Leitzaldean (Leitza, Larraun, Imotz-Basaburua, Goizueta, ...), Malerrekan, Bortzirietan (Bera,

---

*Aipatutako azterketa honetan ageri denez, erdaldun hutsak diren 15 urtetik gorako Iruñerriko biztanleak 215.000 dira. Euskalduntzeari begira bada ba eginbeharra. Ez dakiten hauek, nekez ikasiko dute etxean euskara orain arte egin ez badute; eskolaroa ere joan zaie, beraz, pertsona hauek euskaltegietan euskaldundu beharko ditugu.*

**Azken urteetan Nafarroan helduen euskalduntzean beherako joera dugu, gero eta ikasle gutxiago dugu. Milaka eta milaka erdaldun huts izanik nola liteke jende gehiago ez etortzea euskara ikastera? Nonbait hurbil dugun jendea, euskara ikasi eta maite duena, etorri da. Ikasi nahi omen duten eta etortzen ez diren horietako askok uste ustel franko badute, aurki ere.**

Lesaka), Iruñean, Barañainen, Atarrabian, Eguesen, Zarrakaztelun, eta Vianan eta Mendabian. Azken bi hauek Arabako Errioxako euskaltegiaren barnean.

**Euskaltegiak Nafarroan, gaur**

IKA:	Atarrabia	Leitzalde	Bortzirriak
	Malerreka	Iruñea	Barañain
	Basaburua	Zarrakaztelu	Viana
	Egues		

AEK:	Tutera	Lizarra	Iruñea
	Sakana	Burlata	Agoitz
	Lodosa	Erronkari	Tafalla
	Ultzama		

Udala:	Iruñea – Orkoien
--------	------------------

**Ikasle kopuruak Nafarroan, gaur**

AEK: 848
IKA: 619
Zubitarte Euskaltegia: 462
Hizkuntz Eskola ofiziala: 597 (Iruñea) eta 51 (tutera)
Gainerakoak (udalen bat eta guraso elkarteren bat): 72
Funtzionarioen euskaltegia: 363 (iraupen ezberdineko ikastaroetan, autoikaskuntza...)
NUP: 76

**EUSKALTEGIETAN ARITU DIRENAK**

Eta ikasten dutenak zenbat dira? Eta gero erabiltzen dute? Euskaraz aritzen ote dira? Bada ikasten eta erabiltzen duenik, bere laneko hizkuntza duena, lagunekin eta etxekoekin euskaraz mintzatzeko dena, bada, euskaltegitik landa hitz egin ez eta urte batzuen buruan berriz etortzen dena gogoratzerako, -ingurune arras erdaldunean bizi delako, euskaldun gutxi dagoelako edota euskaldunak izanik ere identifikatzerik ez dugulako; norberaren izaera dela eta, lotsatia delako-, prozesua erdizka uzten duenik ere bada,...

Zenbat horrelako edo halako? Ez da erraza erantzutea, ez baitago azterketa fidagarri eta osorik.

Euskaltegian euskara ikasi baina erabiltzeko aukera gutxi duten horiei begira, bada hiru urte, Mintzakide proiektua martxan jarri zela Topagunea eta beste hainbat talderekin batean. Euskaraz aritzeko ohitura duen jendea gutxitan aritzen den hauekin harremanetan jarritz proiektu honen bidez.

## AURRERA BEGIRA

Egiteko asko dago bada arlo honetan: ikasleak erakarri euskaltegietara, sentsibilizazio kanpainak egin, norengana, nora jo ikusi, lehentasunak ezarri... ikasleak euskaldundu, irakaskuntza sistemak aztertu, didaktikaz hausnartu, mailaketaren inguruan eztabaidatu... Erabilera guneak sortu, emaitzak aztertu eta baloratu, bitarteko ekonomiak erdietsi... Hori guztia ezin euskaltegiek bakarrik egin, beraz, instituzioek eta jendarteak badugu zer egin elkarrekin euskalduntzea baldin bada gure helburua.■

---

*Ikasle hauetaz landa,  
autoikaskuntzan badira  
15 eta euskaltegietatik  
kanpo ematen diren  
eskoletakoak 50 inguru  
aurten. Lan munduan  
sarrera txiki bat egin  
dugu, azken hiru urte  
hauetan bost lantegitan  
hasi baikara klaseak  
ematen. Astean 2 edo 4  
ordukoak izaten dira,  
ordea, eskola hauek,  
beraz, euskalduntzeari  
begira ez oso  
eraginkorrak.*